



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEA BIGARRENEZ ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

1.- AURREKARIAK

Txosten honen xedea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzeko lege-aurreproiektuaren oinarri objektiboa, aurreproiektuaren edukia Legeari eta Zuzenbideari egokitzen zaion aztertzea eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzen diren aztertzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan oinarrituz egin da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna –benetakoa eta eraginkorra– lortzearen alorrean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2/1988 Legearen 3. artikuluan izendatuta dituen eskuduntzak baliatuz. Bestalde, hauxe da prozedura-une egokia txosten juridikoa ebaluatzeko, lege-aurreproiektuaren lehen zirriborroaren aurreko onarpen-dekretuaren ondoren. Aipatutako 8/2003 Legetik ondoriozta daiteke hori egokiagoa izango zela entzunaldia egiteko, informazioa jendaurrean jartzeko eta beste administrazio publiko batzuei kontsultatzeko izapideak egin aurretik, baina epeak estutzeko beharrak, legegintzaldia agortzeko gutxi geratzen dela ikusita, aipatutako izapideak aurreratzera behartu du.

Txostena egin den arauaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea osorik aldatzea.

Hasiera batean, Lehendakariak emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Legea prestatzera bideratutako prozedurari hasiera emateko agindu zuen, urriaren 19ko 16/2018 Dekretua onartuz eta gobernu-kontseiluak 2017ko otsailaren 28ko bilkuran onartu zuen «XI. Legegintzaldiko Legegintzaldi Programan» hartutako betebeharra betez.

Dekretu horretan bi aukera aztertzea planteatu zen, arau independente gisa duen artikulatzea edo, aitzitik, indarrean den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen barnean sartzea, hark emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kapitulu bat bai baitu dagoeneko. Hainbat azterketa egin eta adituei kontsultatu ondoren, araudiaren osotasuna mantentzea erabaki da, eta, hortaz, gai hori gaur egun indarrean den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen barnean mantentzea dela koherenteena iritzi da, emakumeen aurkako

indarkeriaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunik ezaren arteko lotura bereizizina delako eta, horrela, autonomia-erkidego honetako ibilbide historikoarekin jarraitzeko. Aukera hori Istanbulgo Hitzarmenak bermatzen du, zeina aurrerago aipatuko dugun, eta eskatzen du generoagatiko diskriminazioaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren artean dagoen lotura berresten duten legeak emateko, eta Estatuak behartzen ditu modu eraginkorrean aplikatzera emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeak ahalduzko politikak, generoagatik pairatzen duten indarkeria ezabatzeko. Ondorioz, lotura hori indartzea izan da hautatu den legealdaketaren funtsezko arrazoia; 2005ean Eusko Legebiltzarrak onartutako eta gai hori dagoeneko arautzen zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aldatzea, berdintasunik ezaren gainerako adierazpideekin batera, eta ez emakumeen kontrako indarkeriaren arloko lege bereizi eta berariazko bat egitea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldatzeko lege-aurreproiektuaren zirriborroa eginda, onartu egin zen: Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak, 2019ko martxoaren 6an, eta lehendakariak, martxoaren 7ko 29/2019 Dekretuaren bidez.

Txostenari dokumentazio hau erantsi zaio:

- 16/2018 Dekretua, urriaren 19koa, Lehendakariarena, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lege-aurreproiektua prestatzeko prozedurari ekitea agintzen duena.
- 7/2019 Dekretua, martxoaren 7koa, Lehendakariarena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua aurrez onartzen duena.
- Memoria laburtua
- Egindako ekarpenak, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean; ekarpenok 8 norbanakok eta erakunde, kolektibo edo talde, eta Eusko Jaurlaritzaren nahiz beste administrazio publiko batzuetako sail hauek egin dituzte:

1. Hautuzko Ama Ezkongabeen Erakundea (MSPE EUSKADI)
2. Berdinsarea
3. CCOO
4. UGT
5. Emakunderen Aholku Batzordea (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako azpibatzerdeak).
6. Confebask
7. Elkartean
8. Eoncult

9. Euskal-Gorrrak
10. Euskalit
11. FEVAS, adimen-urritasuna dutenen aldeko Elkartetako Euskal Federazioa.
12. Garaipen Elkartea
13. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari laguntzeko Sailarteko Talde Teknikoa.
14. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeari laguntzeko Erakundearteko Talde Teknikoa.
15. ICAGI
16. Infopolis-Dimensión Género
17. UPV/EHUko masterra
18. Plazandreok
19. Bilbao Gizarterako Elkartearen Oblatuak Leiho Zabalik programa.
20. Prospektiker
21. SATSE
22. Eudel
23. Ogasun eta Ekonomia Saila
24. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
25. Segurtasun Saila
26. Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila
27. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
28. Osasun Saila
29. Bizkaiko Foru Aldundia
30. Gipuzkoako Foru Aldundia
31. Gorbeialdeko kuadrilla

- HABAHZren antolaketa-txostena

2.- PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO OHARPENAK

2.1.- ESKUMENA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren (EABJ) 64/2004 Irizpenean jaso zenaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren sustapena emaitza jakin bat lortzeko joera duen politika da, eskumen-eremu bat baino gehiago. Hau da, diziplina anitzeko edukia du, transbertsala, ordenamendu juridikoko askotariko sektoreei eragiten diena, eta horrek zaildu egiten du eskumenak lurralde-mailen artean banatzea.

Ondorioz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean proiektatutako aldaketek hainbat eskumen-tituluri eragiten diote. Horiek guztiak Ley 4/2005 prestatzeko unean aztertu ziren, hortaz, orain, gehiegi sakondu gabe, azaletik aipatuko dira; hori dagoeneko EABJk egin zuen modu berezian aurreko espedientean.

Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren (EAEAE) 9.1 artikuluan, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza aldarrikatzen da. Halaber, lege-testu horren 9.2.d) artikuluan adierazten denez, botere publikoek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeke betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorren gauzatu dadin.

Txostena egin zaion aurreproiektuarekin zerikusia duten eskumen zehatzei dagokienez, EAEAEren 10.39 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela emakume-kondizioaren arloan, hots, nazioarteko, Europar Batasuneko, estatuko eta autonomia-erkidegoko egungo terminologian. «emakumeen eta gizonen berdintasunaren» arloan, eta, aurrez adierazi den bezala, hasierako ikuspegi asistentzialista gainditu du eta arlo transbetsal bilakatu da, arlo eta eskumen gehienei eraginez.

Hauek dira zuzenean eragindako gainerako eskumenak: autogobernua eta autoantolaketa (EAEAEren 10.2 artikulua), parte-hartzea, fundazioak eta elkarteak (EAEAEren 9.2 e) eta 10.13 artikulua), funtzio publikoa (EAEAEren 10.4 artikulua), kontratazioa (EAEAEren 11.1 b) artikulua), dirulaguntza- eta zehapen-araubidea (EAEAEren 10.6 artikulua), kultura (EAEAEren 10.17 artikulua), komunikabide sozialak eta publizitatea (EAEAEren 19. eta 10.27 artikulua), hezkuntza (EAEAEren 16. artikulua), enplegua eta prestakuntza (EAEAEren 12.2 artikulua), negoziozko kolektiboa (EAEAEren 10.2 artikulua), ingurumena (EAEAEren 11.1 a) artikulua), landa-ingurunea, etxebizitza eta hirigintza (EAEAEren 10.31 artikulua), garraioa (EAEAEren 10.32 artikulua), emakumeen kontrako indarkeria (erreformak lehentasunez eragiten dio gizarte-laguntzaren arloari, eta haren oinarria EAEAEren 10.12 artikulua da).

Lurralde Historikoei beren eskumenak esleitzeko garaian, 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzkoak, 7 c) artikuluko 2. apartatuan, Lurralde Historikoei emakume-kondizioaren garapena esleitzen die, lehenengo zuzeneko ekintza baztertu gabe.

Udalen eta beste toki-administrazio batzuen eskumenei dagokienez, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1 artikuluan, antolamendua,

plangintza eta gizarte-zerbitzuen kudeaketa esleitzen die, eta, 27. apartatuan, genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politiken antolamendua eta kudeaketa.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa, onartuta, lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin diskriminazioz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzea sustatzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratua sustatzeko lana ere bai.

Ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eskumena du arauaren izapideak egiteko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3.c) artikuluan eta Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 2.2 c) artikuluan ezarritakoa baliatuz.

2.2.- PROIEKTUAREN AZTERKETA

Izaera orokorreko arauaren proiektua da, lege-mailakoa da eta izaera aldarazlea du, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari eragiten dio.

Aipatutako Legea onartzeak aukera eman zuen esparru juridiko sendoa ezartzeko eta garatzeko, eta horrek indar lotesle eta pisu politiko handiagoa eta bitarteko eta baliabide gehiago ekarri zizkien berdintasun-politikei. Hala, aurrerapen nabarmenak egon ziren emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorraren bidean, bizitzaren arlo desberdinetan.

Dagoeneko hamalau urte baino gehiago igaro dira, eta arau- nahiz gizarte-aurrerapenek, 4/2005 Legeari egindako ebaluazioen emaitzarekin batera, testuinguru berri baten aurrean jarri gaituzte, non beharrezkoa baita indarrean dagoen testua sakon berrikustea eta autonomia-erkidego honetako egungo erregulazioa behar berrietara egokitzea.

Zehazki, arloari eragiten dioten zenbait arau-tresna onartu dira.

Lehenik eta behin, Europako Kontseiluaren maiatzaren 11ko Hitzarmena dago, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren kontra borrokatzeari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena). Espainiako estatuan 2014an jarri zen indarrean, eta barneko ordenamendu juridikoak egokitzeke betebeharra txertatzen du, hitzarmena osotasunean aplikatzen dela bermatzeko. Halaber, Estatuaren esparruan, 2017an sinatutako Genero Indarkeriaren kontrako Estatu Itunaren bidez garatu da.



Itunak erakundeek emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean duten erantzuna hobetzeko konpromisoak eta neurri zehatzak jasotzen ditu.

Era berean, 6/2019 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 1ekoak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presazko neurrienak, aldaketa nabarmenak txertatu ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko araudian; euskal araudiak haiek kontuan hartu behar ditu, Estatuko ordenamendu juridikoaren eta autonomia-erkidegokoaren arteko koherentzia mantentzeko eta ondorio onuragarriak indartzeko.

Ildo beretik, autonomia-erkidegoko araudia egokitu egin behar da irizpide sozialak (emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutakoak barne) txertatzeko nahitaezko eta zeharkako betebehari erantzun egokia emateko, hala ezartzen baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora.

Jazotako bilakaera berrikusten bukatzeko, nabarmentzekoak dira 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena, eta 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, delituaren biktimaren estatutuarena; legeok lege-erreforma bultzatzen dute, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa eta hari eman beharreko erantzuna indartu eta osatzeko. Era berean, Nazio Batuek 2015ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak sexuen arteko berdintasuna eta emakume nahiz neska guztien ahalduntzea zehazten du bosgarren helburu gisa.

Funtsean, azaldutako arrazoi guztiengatik, indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzea proposatzen da.

Arauk ordenamendu juridikoan izan dezakeen eraginari dagokionez, arau hauek aldatzea aurreikusten da:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoari buruzkoa
- 4/1986 Legea, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa.
- 1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Fundazio eta Partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.

Halaber, izan daiteke funtzioak doitzearen eraginez honako hauek berregokitu behar izatea: 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena, 2/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde sortarazteari buruzkoa, 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, eta 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze- edo haustura-kasuetako familia-harremanei buruzkoa, 213/2007 Dekretua, azaroaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituen, 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa, 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, eta 214/2006 Dekretua, urriaren 31koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Gomendatzen da azterketa bat egitea ordenamendu juridikoaren egokitzapena osatuko duten azken xedapen berriak gehitzeko beharrari buruz, lege-maila duten aipatutako arauari dagokienez.

2.3.- LEGEGINTZA-TEKNIKA

Legegintza-teknikako arauari dagokienez, printzipioz, 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartutako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak prestatzeko gidalerroek ezarritakoa betetzen da, arau aldarazleei dagokienez: aldatutako legearen tituluak zenbakirik eta datarik ez izatea, esparru-testua eta erregulazio-testua bereizita egotea eta abar.

Hala ere, proposatutako aldaketen ugaritasuna ikusita, ~~gomendatzen da jarraitzea~~ **eta** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina **kontuan hartuta**, zeinak antzeko kasuetarako honako hau xedatzen duen:

«Azken finean, aipatutako arauaren hirugarren aldaketa da (eta ez bigarrena), eta horregatik gomendagarria da arau berri eta oso bat idaztea, aipatutako erregulazioan txertatutako aldaketa guztiak bilduko dituena. Kontuan hartu behar da arauak irakaskuntzako zuzendaritza-karguak lortzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituela eta aldatzen diren alderdiak dituzten baremoak biltzen dituela. Horregatik, are komenigarriagoa da xedapen berria onartzea, arauaren hartzaileek ondo ezagut dezaten prozedura horietan eragiten dien araudia, eskatutako segurtasun juridikoa lortzeko».

Gomendatzen da arau berri eta oso bat idaztea, mantendu nahi den 4/2005 Legearen edukia jasoko duena, baita proposatutako aldaketak ere.

Bestalde, zioen azalpenaren testuari dagokionez, luzeegia dela ikusi da, eta justifikazio-memoriaren berezko alderdiak aipatzen dira, hala nola hori proiektatzeko errealitatea edo antzeko erregulazioen aipamenak. 1993ko martxoaren 23ko Gidalerroek, aldiz, adierazten dute arauaren jatorria, helburua eta hartutako neurriak labur-labur azaltzera mugatu behar direla, batez ere berrien kasuan, eta arauaren egitura bera ez dagoela zertan azaldu. Beraz, birformulatzea gomendatzen da.

Zirriborroan ez da hizkera sexistarik erabiltzen, hortaz, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 2/2005 Legearen 18.4 artikuluan xedatutakoa betetzen da.

3.- IZAPIDETZEA

Prozedurari ekiteko agintzen duen Lehendakariaren urriaren 19ko 16/2018 Dekretuan aurreikusitako izapidea honako hau izan zen:

1. Administrazio honetako gainerako sailei ezagutaraztea, baita Gobernuaren eragile juridikoei ere, prozedura hasteko Dekretu hau LEGESAREA lankidetzaz-esparruan txertatuz.
2. Justifikazio-memoria, memoria ekonomikoa eta genero-eraginarena egitea.
3. Lehendakariak aldeztu aurretik onartzea.
4. Jendaurreko informazioa.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailek, foru-aldundiek eta Eudelek parte-hartzea eta haiei kontsultak egitea.
6. Kontsulta-organo hauen nahitaezko txostenak eta irizpenak:
 - a) Generoaren arabera Eraginaren Ebaluazio Txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.
 - b) Kultura Sailaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eragina eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren barruan Kultura Sailak txostenak bideratzeko bete behar duen araudia ezartzen duen abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuaren 2. artikulua bete dadin.

- c) Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 11.1. c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, betiere erakunde edo organo instituzional bat sortzen bada.
 - d) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren irizpena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.a) artikuluekin lotuta aipatzen den 71/2017 Dekretuaren 17.a) artikulua aplikatuz, funtzio publikoko arloren bati eragiten dionean.
 - e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 4 a) artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikuluekin lotuta.
 - f) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, batzorde hori arautzen duen azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikulua xedatzen duenaren arabera.
7. Behin betiko testuak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluaren onespina jaso beharko du, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 8.c) artikuluan xedatutakoa bete ahal izateko, hura Gobernu Kontseiluari bidali aurretik, bertan onartu eta Eusko Jaurlaritzara bidal dezaten.
8. Ez dago Europar Batasunean inolako izapiderik egin beharrik.
9. Espedientera, aurreproiektua egiten hasteko Dekretu honetaz gain, honako hauek sartuko dira: Dekretuari dagozkion dokumentu guztiak, bideratutako azterlanak eta kontsultak, Dekretu honen bosgarren apartatuari jarraitzen dion memoria ekonomikoa eta prozedura osoari buruzko memoria laburra, abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10.2 artikuluan ezarritako edukiarekin. Hartara, Gobernu Kontseiluak lege-aurreproiektua onartuko du, aipatutako Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Hala ere, hainbat aldageta egingo dira aipatu berri den izapideari dagokionez.

Hala, lehenik eta behin, Generoaren araberrako Eraginaren Ebaluazio Txostenik ez egotearen arrazoia da ez daukala zentzurik hori egiteak, kontuan hartuta aurreko Eragin Txostenean oinarrituz egiaztatzen dela eta biak egiten dituela administrazio-unitate

berberak. Ondorioz, eta EABJren doktrinari jarraituz, ulertu behar da Generoaren araberako Eraginaren Ebaluazio Txostenak haren aldeko balorazioa duela, ikuspuntu bikoitzetik: berdintasunaren arloko araudia betetzen duelako eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duen eraginagatik.

Bestalde, testuari egin zaizkion aldaketak kontuan hartuta, ikusi da posible dela txosten gehiago bildu behar izatea, zehazki honako hauek:

- a) Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko II. Erakundearteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen txostena, bosgarren erabakian xedatutakoari jarraituz.
- b) Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren txostena, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 44.3 a) artikuluan ezarritakoari eta Organo hori arautzen duen martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuaren 3 a) artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- c) EAEko Kontratazio Administrazioaren Aholku Batzordearen irizpena, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoak, 27.a).1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.
- d) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren irizpena, hori arautzen duen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- e) Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluaren irizpena, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3 a) artikuluari jarraituz.
- f) Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren txostena, ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 145.2.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- g) Euskadiko Eskola Kontseiluaren irizpena.
- h) Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen irizpena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 88.b) artikuluan lotuta, 91. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

4.- ONDORIOAK

Aldeko txostena igorri da, ordenamendu juridikoa egokitzeko eta legegintza-teknikako adierazitako oharrekin batera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 8a



**Izpta: Izaskun Fernández Otegi,
Aholkulari juridikoaren arduraduna**